

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

#### 145/2025 prozeduran interesa izan dezaketenak epatzea

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, argitara ematen da espedientea Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegira bidali dela, 145/2025 errekurtoa bideratzeko, zeina prozedura laburtuaren bidez gauzatu baita, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren apirilaren 1eko 161/2025 Foru Aginduaren aurka jarritako berraztertze errekurtoa administrazio isiltasunez ustez ezetsi izanaren aurka. Agindu horren bidez, karrerako funtzionarioaren izendapena egin zen Administrazio Orokorreko eskalan, kudeatzaileen azpieskalan, erdi-mailako teknikarien klasean (A taldea, A2 azpitaldea), zeina Arabako Foru Aldundiko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuari baitagokio (2022ko EPE).

Iragarki honen bidez epatu egiten da prozeduran interesa duen oro autoetan agertu eta pertsonatu dadin. Horretarako, bederatzi egun izango ditu, iragarki hau argitaratu ondorengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 8a

*Funtzio Publikoko zuzendaria*

MARÍA JOSÉ FERNÁNDEZ ALONSO